



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Enpresa batean, bezeroak negozio-ereduaren funtsa nagusia dira, izan ere, hauek gabe enpresek behera egingo du. Enpresa aurrera eramaten laguntzen dutenak eta proiektua ahalbidetzen dutenak dira. Gure bezeroak hainbat multzotan sailkatzen dira beraien zaletasun, abilezia eta nahien arabera, hau da, beren ezaugarri komunak arabera taldekatzen dira beren beharrak hobeto asetzeko, horrela bakoitzari lan bat egokitzeko.

Merkatuari erreparatu ondoren, ohartu gara jende gazteak dirua behar duela eta hau lortzeko lana da beharrezkoa. Lan bilatzearen prozesua askotan zaila egiten zaio jende gazteari ez dutelako esperientzia askorik eta leku askotan ezezkoa jasotzen dutelako. Horretarako sortu dugu gure proiektua, prozesua hau errazteko eta egingarriagoa izateko.

Gure proiektua jende gazteari zuzenduta dago, hain zuzen ere 16-24 urte bitartekoentzat gutxi gora behera, lanean hasteko interesa dutenentzat hain zuzen. Lanerako prest dauden gazteentzako zerbitzu bat eskaintzen dugu, izango dituzten gastu ezberdinak finantziatzeko dirua izan dezaten, eta aurrerago lan egiteko esperientzia har dezaten.

Gure enpresako bezeroei dagokionez, ez dugu bezero kopuru finko bat edukiko. Ez dugu kopuru minimo eta maximo bat zehaztuko. Gainera, bezeroen hautaketa baztertuko dugu, hau da, denak maila berean baitaude eta gure bezero edonor izan daiteke. Bestalde, uste duguna baino bezero gehiago izango baditugu, kurrikuluma hoberen daukatenei lehentasuna emango zaie. Azpimarragarria da esatea geroz eta jende gehiagok gure proiektuan parte hartuz gero, etekinak geroz eta hobeak izango direla. Hau da, onuragarria izango litzateke gure enpresak ahalik eta jarraitzaile gehienak edukitzea ezagunagoa bihurtzen joateko. Hala eta guztiz, argi dago pertsona kopuru minimo bat beharko dugula gure proiektua aurrera eramateko.

Horrez gain, merkatu mota ezberdinak daude eta eskaintzen duzunaren arabera izango dira zure bezeroak. Gure kasuan, merkatu masiboaz baliatzen gara. Antzeko beharrak eta arazoak asetzeko helburua daukagulako. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai bezeroarekiko harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, zeinak antzeko beharrianak eta arazoak dituen.



Laburbilduz, gure proiektua jende gazteri zuzenduta dago, hortaz gure bezero nagusiak beraiek dira. Izan ere, hauek dira udaran lan egiteko behar gehiena dutenak eta eskuratzeko zailtasunak handienak dituztenak.